

# ERBESTEKO ELURRIA

FELIPE JUARISTI



## ERBESTEKO ELURRA

*Narratiba, 121*

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*1. argitalpena: 2019ko azaroan*

Azalaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Felipe Juaristi

© EREIN. Donostia 2019

ISBN: 978-84-9109-494-4

L. G.: SS-1125/2019

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

Felipe Juaristi

# ERBESTEKO ELURRA



— LEHEN PARTEA —

Istorio klase batzuk, orain kontatuko dudana esaterako, eleberria balitz bezala kontatu behar dira, historia-kronika hutsa egiteko tentaldiari iskin eta mizkin eginik. Galduko lukete, bestela, izan dezaketen sinesgarritasuna. Betiko eztabaida da, betiko auzia, betiko katramila, idazle jendearen artekoa, badakit, baina ez nau horrek gehiegi kezkatu orain artean. Ni ez bainaiz izan ez historiagile ez eleberrigile, liburu iruzkingile soil soutil bat baizik, kazetarien artean behe-mailakoena. Historiagileak gauzak gertatu izan diren bezala esan nahi ditu; eleberrigileak, gertatzea nahi izan diren bezala. Nahitik izatera dago alde, izatetik nahira bezainbeste. Historiagilea egiaren bila dabil; eleberrigileari, ordea, estiloa, kontatzeko era eta helburu estetikoak interesgarriagoak zaizkio, funtsezkoagoak izateaz gainera. Historiagileak egia gezur bihur dezake; eleberrigileak, gezurra egia. Kazetariak erdiko bidea hartu izan du, ez du gertatu izan dena kontatzen, ez du gertatzea nahi izan dena adierazten, eta, egia esan, askotan estiloaren etsai izan da, eleberrigilea estiloaren morroi izan den bezala. Ez da egiaren bila abiatu; errealtatearen bila baizik. Baina errealtatea guztiz da tronpagarria

eta, tarteka, apokalipsiaren tronpeta jotzen du, hilerrian ez gutxitan. Ozenki azaltzen digu non gauden, ez non egongo garen, are gutxiago non egon nahi genukeen, ez baita haren zerregina. Kazetaria, errealitatea non dagoen jakin nahian, batetik bestera ibili ohi da; orain hemen, gero han, hegazia bezalaxe. Eta tronpatzen da bera ere, eta erortzen kazetari-zerutik behera, eta ipurdiz gora geratzen, gorde ohi dena, eta gordean geratu beharko litzatekeena, denen begi bistan eta denen harrigarri azalduz. Iruzkingleak, ordea, iruzkina eleberria balitz bezala idazten du, eta, askotan, iruzur egiten du, eleberri baten iruzkina ezin baita eleberriaren antzera idatzi; poesiarena poesia balitz bezala ezin idatzi daitekeen bezala.

– 2 –

Udaberria zen, 2013ko maiatza, Madrilera iritsi nintzenean. Bero egiten zuen, ordea, Madrileko egonaldian bizitzeko hartu nuen apartamentuan: zerutik gertuago, lurretik baino. Leiho bakarra zuen, sabai aldean eta gauez, kutsadurarik ez balego, izarrak ikusiko nituzke, erauntsian, zentauro amorratuak balira bezala. Gauetan, izan ere, beroa jasangaitza egiten zitzaizdanean, aulki bat hartu, hara igo, eskuak leiho ertzetan jarri eta, jauzi txikia egin ondoren, leiho-zulotik barrena teilatura iristea lortzen nuen. Han, larrugorrian, txori, abere eta basapiztien antzera, teilen gainean etzaten nintzen, ahoz gora eta besoak zabal-zabal eginik, Kristo iltzatu gabea, Kristorik gabeko iltze haragizkoa, eta beste etxeetako teilatu gainak ikusten jarduten

nuen, begiz ikus ahal guztian. Eta zin egiten dut bazela zeri-kusia teilatu gainalde haietan, dena ez baitzen eliza-kanpandorre eta administrazio-eraikin. Halakoetan, noiz edo noiz, inguruko teilatu horiek airean altxa eta ezkututzen duten jendea zelatzeko gogoia etortzen zitzaidan. Berehala ordea joaten zitzaidan fantasia hori. Era berean, sena eta usaimena aienatzen zitzaizkidan, eta leiho eta balkoietan kanpora aterata egon ohi ziren gizon-emakumeak, arropa gutxirekin, edo batere arroparik gabe ikusteaz aspertzen nintzenez apartamentura itzultzen nintzen, eta neure buruari loaren menturara joaten uzten nion. Ez beti lortzen ordea. Behin baino gehiagotan, teilaren bat askatu eta hura gupidarik gabe kalera botatzeko gogoak hartu izan ninduen, baina ordu horretan ukituz gero erre egiten zuenez, surik gabe, zeuden tokian uzten nituen, bake-bakean, teilen erreinu gori gurian. Ez da behean, kaleko taberna atarrietan kantari, dantzari, zirtolari eta xirribikari ari ziren gizon-emakumeek teilakada bana merezi ez zutelako, hainbestekoa baitzen haien grina ordu txikiak ordu handi bilakatu nahian, ezen beraiek ere, alderantzizko indar baten eraginez, handi izatetik txiki izatera igarotzen ziren, denborari, logikari eta arrazoimenaren legeei purrusta eta burla eginez. Haurtxoak balira bezala ikusten nituen, lurrian arrastaka, bebarruetan beren barneko urak kanpora botatzen, Manzanares gutxitu eta urriaren, Manzanares ur-olarik gabearen gisa, eta elkarren haragi puska flako, herbal eta eskasak eskuetan hartzen, neurtzen eta pisatzen. Behin baino gehiagotan, hala ere, barneko uholdeak bultzaturik, askatu egin nituen nire sabeleko ur gaziak eta han joan ziren goitik behera gorputz haien desertura abian, eta nago berehala sikatu zirela, behea jo baino lehen.



Hala ere, euri modukoa urrutitik sentituta, behekoek ahoa irekitzen zuten, edan nahian. Zirimiri intimoa, malenkoniak jotakoen edari.

Esan behar dut nire bizitza orduan ere guztiz arrunt eta zekena zela. Kale alai batean bizitzen hasi nintzen, Armugosa kallean hain zuzen, eta kanpotar asko etortzen da bertara, aspalidion modan jarria delako, ez giza dekretuz, noski, bizitzaren lege aldakorren eraginez baizik. Gaur erabakitzen dute kale edo auzo bat famatu behar dela eta bihar ohore hori berari ebatsi eta beste bati ematen diote, eta, horrela, kapritxo kapritxo, apetatik apetara, nahitik nahikundera, hiriaren toki ospetsuen mapa osatzen eta konpletatzen da nolabait. Lagungarria izan da, bai, artista jende famatuen iritzia mapa horren marrazketa burutzean: aldakorra ez ezik, nobedadeen mendeko bera ere. Eta halakoren batek esaten badu egunkarian «Chueca auzoa oso dut maitea», haren jarraitzaileek Chuecara joko dute, erromeria txalapartarian bezala, eta hango bazterrak bisitatuko dituzte, miresten dutenaren zantzuei jarraiki, haren lurrin-tanta galdu batez beren buruak busti nahian, irudimenean bada ere. Bizi garen auzoa Lavapiés da, aktore eta artisten auzo. Banaka etorri ziren eta banaka bizitzen hasi, baina multzoka parte hartzen zuten batzar eta bileretan, auzoari beste itxura bat eman nahian. Eta antzeztokiz bete zuten hiri alde hori; antzeztoki handi, txiki eta ertainez, Madrileko alde horretan antzerkia oso estimatzen den artea baita, antzerkia egitetik –alegia, ez dena erakutsi eta horri etekina ateratetik– bizi baitira gehienak edo. Kale baikoitzean dago bat, eta interes handikotzat jotzen dira, eta diruz ere laguntzen, bat baino gehiago dituztenak. Argumosa kallean bakarra dago, Valle Inclán izenekoa, baina auzoko

garrantzitsuena eta, agian, Madrileko interesgarriena denez, gainerakoei itzal egiten die, harro samar, hala nola kaleko farol mehe eta luzexko batek paperontzi ziztrin bati. Esan behar dut Valle Inclán ez zela edozein izan, ez hurrik eman ere. Unamuno eta Barojarekin lehiatu zen, norgehiagoka, eta, nik uste, gaur egun ere haiekin lehiatuko balitz, garaile aterako litzatekeela, denek aitortuko ez badute ere. Iruzingile ahotsaz esan dezaket, nahiago dudala Valle Inclán bakar hori milaka sasi-barojatar baino. Kanean bada beste antzetzoki bat, guztiz inprobisatua. Auzokoek orube bat bereganatu zuten, etxegintzaren krisiaz baliaturik, krisigintzan gogor jardunez, eta adreiluzko etxea eraiki beharrean ametsetakoa zuten eraitsi, hitzez eta musikaz egina.

Auzora etorri berritan, lehen astean, orduko beroaldiari ezin eutsi eta unetik unera txorabiatzen nintzelarik, begiak itsutu eta burua lanbrotzeraino, etsipenaren magaletik irten nahirik, antzerkigile eta poeten batzarretan parte hartzen hasi nintzen. Auzo elkarteak utzitako txoko bat zen, garbiketarako tresnaz josia, lixiba eta detergente-kerua airean zeukalarik hegan bezala, eta pareta zuri izandakoei itsatsita. Garbitasun haren erdian ez genuen izaten garbi ez hitz egiteko aitzakiarik eta guztien mihiek distira egiten zuten, zuritzeraino. Bainuontzi batean sartuta beratzen egon izan bagina bezala irteten genuen gero handik, usain-emaile. Halako batean, bost egun baino ez nituen eramango auzoan, haien artean nengoelarik, osasunminez gehiago benetako interesaz baino, esan nuen nik ere banela nire paperen artean antzerki lantxoren bat, ez nirea, Maria Zubillaga, *Felice*, filosofia-irakasle eta antzerkigilearena baino, *Elkarrizketak* liburutik lapurtua. Hango partaide guztiek

antzezteko ordena eman zidaten, aholkua bainoago, lantxoazertan zen jakin gabe, eta jakin nahi gabe. Hala egin genuen.

– 3 –

TOMAS ETA BENITO  
LAVAPIESEKO TABERNA BATEAN

*(Tomas Hobbes eta Benito Spinoza, Madrilen daude, Lavapieseko taberna batean. Taberna txikia da, mahai bakarra du, eta bi aulki.)*

TOMAS: *Homo homini lupus*, Benito.

BENITO: *Caute*, Tomas, *caute*

TOMAS: Zergatik sortu den orok irau nahi?

BENITO: Eutsi nahi diolako bere izaerari.

TOMAS: Hiltzeko larriminez?

BENITO: Bizitzeko beldurrez, esango nuke. Bizitza askotan heriotzaren irudia baino latzagoa da.

TOMAS: Ez dut ulertzen, are gehiago beldurra eta biok batera jaio ginenean.

BENITO: Bisaian nabari duzu, oilo bustia dirudizu. Deus ez da heriotza.

TOMAS: Eta deus ez denak ezin sufri.

BENITO: Eta ezin goza. Aparraren azalean egon behar, sekula hondoratuko ez den Itsas Armadaren gisa.

TOMAS: *Caute*, Benito, *caute*. Ez hemen aipa deabrua, adar joka baitator.

BENITO: Bere hilobian datza Philipus Errege.

TOMAS: *Conatus nonatus.*

BENITO: Hila, zendua, hautseztatua. *Consumatum est.*

TOMAS: Zerbait izugarria da heriotza, irudipena dudanez.

BENITO: Parolak! Heriotza gorputzetik eta mundutik alde egi-  
tea da, eta hori une batez gertatzen da, bat-batean, esaten  
den bezala.

TOMAS: Hitz handia da heriotza, alafede, Benito.

BENITO: Hitz handia, bizitza bezala, baina batzuei joaten zaie  
ornamentu, ederkeria eta hantustetan.

TOMAS: Nor esango zenuke hantusteago dela, filosofo dokto-  
rea ala poeta bertsolaria?

BENITO: Zenbait poeta tristek ezin dute ikusi beste inoren lana,  
sufrikario latz eta neurrigabea jasan gabe, jelsiaz eta be-  
kaitzez kutsatu gabe, lana paperaren larruan ez egonik, bes-  
tearen muinetan badago ere. Salbu-eta nazioko gober-  
nuan ministro edo sailburu izendatzen badituzte; orduan  
arazoari konponbidea ematen diote.

TOMAS: Zein?

BENITO: Beren lanari argia ematen diote, eguzkia balitz bezala,  
eta besteei itzala, eklipsea baino ilunagoa.

TOMAS: Azerikeria galanta da, milaka makiabelorena adinakoa.  
Nago ez dela inor horietaz fidatuko.

BENITO: Oker zaude, inozoa zozoa baino ugariagoa da, prin-  
tzeen artean batez ere.

TOMAS: Gatibu uzten didazu hitza, eta armarik gabe arrazoi-  
mena.

BENITO: Okerragoak dira filosofoak, zeren pentsamenduaren  
errege direla sinetsirik, luzarora ondorioztatzen dute erregeak

dirrela eta, egia esan, ideien gortesau bilakatu dira, eta haien bizkarraren gainean benetako erregeek eserlekua egina dute.

TOMAS: Zein duzu buruan, Leviatan arren?

BENITO: Bada graziadun bat, eta ez dut abizenik esango. Sinesten du gobernuak, eta politikoak ere, egin eta desegiten dituela sarao eta afari-mendietan, baina egiazkoa da haiek direla bera grazia graziosoan dutenak.

TOMAS: Supizturik ikusten zaitut.

BENITO: Baina filosofo doktore eta poeta errimaz armatuei gaitz berak erasaten die, eta minduta dabilta horiek ere.

TOMAS: Ez dizut harrapatzen esan nahi duzuna.

BENITO: Ezta harrapatuko ere. Izan ere, kontua ez baita inoren borondatea harrapatzea, borondateen salerosketa baizik. Gaitzaren izena zurikeria da, eta zuritik izena baino ez du.

TOMAS: Belzkeria, beraz.

BENITO: Ken ezazu Errioxako ardoa burutik, ez duzu-eta dastatuko. Entzun.

TOMAS: Burutik oinetaraino naiz belarri.

BENITO: Zurikeriarik handiena da ideiak kareztatu eta boteredunaren etxea apaintzeko erabiltzea.

TOMAS: Sukaldarien antzera.

BENITO: Filosofoak, sukaldariak bainoago, entsaladen baltsamatzaileak dira. Platonenetik pixka bat dute hartzen, Hiponako gatzaz apaintzen dute, Rotterdameko ozpina gaineratzen eta Mendiko Jaunaren olioaz bustitzen. Dena neurrian. Gero zerbitzatzen dute.

TOMAS: Eta Descartes?

BENITO: Deskartatuta, adinik ez du-eta. Ohitura dute paseatzeko txalogile eta intsentsu-lurrin banatzaileekin.

TOMAS: Usain gogorra ez aditzeko.

BENITO: Jarraian, segizio dotorean, hizkuntzaren morroiak, erran zaharren esatariak eta plagianteak dituzte, besteen hitzak lapurtu eta berenak balira bezala saltzen dituztenak.

TOMAS: Toki onean daude, ez daudenez gordeak. Zer pentsamendu datorkizu eskribau edo kazeta-idazleei buruz?

BENITO: Ihes egin ezazu haiengandik, etxekalte, harroputz eta satisfetxoak baitira.

TOMAS: Hain gaiztoak ote?

BENITO: Dagokeen gaitzik okerreana egin dute, zina haustea baino are okerragoa. Hitzak entretenitu eta haien zentzuak aldatzen dituzte. Mendekotasunari ordena diote deitzen, esaneko izateari pedagogia, lukurreriari merkatuko legea, lapurretari inflazio. Eta kritikak jasotzen hasten direnean, korrika egiten dute epaile alfer edo aguazil ganorabako batengana, halakorik ez baita bazterretan falta.

TOMAS: Beldurtuta uzten nauzu hitzokin!

BENITO: Beldurra ez da ezer, Tomas. Esklabotzari ematen diogun izena baino ez.

TOMAS: Eta gizakia zer da, Benito?

BENITO: Hareazko estatua bat. Edozein indarrek lurrera bota dezake.

TOMAS: *Homo homini lupus*, Benito.

BENITO: *Caute*, Tomas, *caute*. Eta itzaletik ibili.

Orubea bete zen, alafede. Batetik, propaganda dezente jarri zuten, auzoko denda eta tabernetan. Baziren, gainera, txartel batzuk, kaleko akazia mehe marduletan zintzilik jarri zituztenak, emankizunaren berri emanaz. Ez zekiten akaziek ere badutela bihotzik, eta sufritzen dutela azala zurituz gero. Bestetik, jakin-minagatik. Lehenago, orubea garbitu zuten, sastraka eta belar txarrez hartua baitzegoen, arte postmodernoarean erakusketa balitz bezala: dena lehorrarengatik horixka, dena ana-basa basa, dena malurak jotako lur. Naturaren emaitza oparo horren ondoan baziren naturalak ez ziren gauzak: kristalezko botila hutsak plastikozkoekin lehian; etxe ez ziren tokietatik ekarritako tresnak, hozkailuak, ikuzgailuak, ikusgailuak, konketak, komunak ez ziren komunak; bazter dekorazioa baino gehiago, txatarreroen altxor; koltxoi zaharrak, maitasun eta gorrotoaren lekuko bezala, grinaren eta gogorik ezaren pintatzaile izanak, odol eta izerdi orbanez zipriztinduak. Garbitu zuten, apaindu zuten, txukundu zuten. Oholtza modukoa altxa zuten, graffiti punkiz jositako pareta baten aurrean, zabortegei batetik kurioso lapurtua bera. Taberna antolatu zuten: oiha lodi baten pean hozkailu zahar bat, hozkailu guztien aitona zutela. Eta garagarra izena ematen dion edaria zerbitzatzeko garagardo-iturri bat, iturrien artean proletarioena. Emakumeek aulki tolesgarriak ekarri zituzten, nor bere etxetik bana. Eta prestatu ziren ikuskizunaz gozatzeko. Euskarazko lana zen, baina hori Maria Zubillaga egileak, bi aktoreek eta nik baino ez genekien. Halako giro eder, ireki eta beroan bigarren mailakoa iruditu zitzaidan hizkuntzarena; hango anaitasun alegeran,

hango adiskidetasun hertsian, hango auzotasun sakonean uste nuen euskaraz idatzitako lan bat ulergarria ez ezik, dastagarria ere izan zitekeela, hitzen gorputzarengatik baino gehiago hitzen espirtuarengatik.

Banituen lanerako bi euskal aktore, biak euskaldunak, biak Ramón izenekoak: Ramón Bilbao bata, Ramón Vitoria bestea.

Kasualitateak abagunea eskainita, nire kaleko *En la boca del lobo* tabernan aurkitu nituen biak, edo biek aurkitu ninduten ni, ez dakit, Madrilera etorri eta hurrengo arratsaldean. Bertara sarraldia egin nuen, neure burua aurkezteko, eta entzun zute-  
nean nire abizena, Alberdi, zeuden txoko ilunetik irten eta ni-  
regana etorri ziren, diosal egitera, jatortasunaren legeak kon-  
plitzera. Garagardoa edaten hasi eta bosgarrenerako lagun egin  
ginen, hamargarrenerako, adiskide, eta ordaindu nituenean  
edandako guztiak, ia anaiak ginen. Haiek ere, nire moduan, de-  
serri zerrian zeuden, ez ideia edo iritzi komunaren arbolari ez-  
pal egiteagatik, alegia disidente izateagatik, ekonomiaren ibil-  
bidetik zuzen ez joateagatik baizik. Ekonomiak aurrera egin  
zuen bezala, aktoreok atzean geratu ziren dirugintzan, eta au-  
rrenak desenplegu bulegoko zerrendan. Euskal Herrian lanik  
gabe geratu ziren. Aktoreek gosea irudika dezakete eta gose-  
tiarena egin, goserik gabe, baina jan beharrak estutzen dituz-  
tenean errazago zaie jan berriarena jokatu, zotz bat hortz artean  
eta eskuak poltsikoan sarturik.

Auzo-elkartekoen lan-enkarguarekin bila joan nintzaien, elkar ezagutu genuen tabernara, hura baitzuten, egoitza, lan-  
toki eta, esango nuke, esna bitarteko iraun-toki. Ordaindu niz-  
kien hartutako botila garagardo eta urdaiazpiko ogitarteko



bana, azaldu nuen ideia, banatu nien Mariaren testua, irakurri zuten, edaten zuten bezain azkar, beste ogitarteko eta botila garagardo bana eskatu baitzuten, nire kontura noski, eta baietz erantzun zuten, pozik antzeztuko zutela. Eztabaida ko-brantzari buruzkoa izan zen soilik; emango ez genien dirurik ez zuten eskatu, baina ez zuten musu truke lan egin nahi. Geroxeago, antolatzaileekin batera, lixiba eta detergente-kerua bazter guztietara zabaltzen eta zabalarazten zuen gelan batzar-turik, azaldu nien egoera eta, lau orduko eztabaida eta gero, ga-ragardotan ordaintzea onartu zuten: hamabi botila garagardo bakoitzari, hipermerkatuko kutxa bat, gehi auzokoek propina moduan opari ziezaieketen guztia. Aingeruak! Esan behar dut, euskal aktoreen mesedetan, lan ederra eskaini zigutela. Une ba-tez, une labur eta soil batez, Donostia etorri zitzaidan burura eta amets egin nuen Lavapiésen aurkeztu genuen lan hura aurki Victoria Eugenia antzokian eskaintzen genuela, publiko donostiarraren aurrean. Baina une berean etorri zitzaidan akor-dura zerk ekarri ninduen Madrilera, eta ametsa bere armairuan itxi nuen eta debekatu egin nion gehiago berriro azaltzea. Pu-blikoari buruz esan behar dut ongi portatu zela. Euskara erru-sieratzat hartu zuten, eta antzerkiak iraun zuen bitartean «Viva Rusia»ka aritu ziren, eta amaitu ondoren, txalo-zaparrada, euri eta trumoa atertutakoan, denak zutik «Internazionala» kan-tatzen hasi ziren. Irabazle atera ginen Ramondarrak eta ni, baina ez geure merituz. Irabazle baina triste eta kopetilun, ni ez nengoelako egon nahi nuen tokian. Ramondarrek ere beste nonbait egotea nahiago.

Lan egiten nuen egunkariaren zuzendaria Luis Berria zen, eta oraindik bada, zergatik engaina. Egunkaria *Ahotsa* zen, eta oraindik bada, ez da mutu geratu, zergatik uka. Irauteko sortu zuten, duela urtebete eskas, 2012ko apirilaren 14an, egun sonatua. Inaugurazio-ekitaldian apaiz sotanadun bat izan genuen hitz eta errezoetan gidari, erretolikan maisu, eta esango nuke euskarari eta itsasgintzari buruz gehiago dakiela teologia kontuei buruz baino. Felix Balerdi da bere grazia. Litekeena da zaletasun horren aingura izatea apaiz horren bigarren lana, irakasle baita itzal handiko ikastetxe batean, eta bereziki Txomin Agirrerren jarraitzaile sutsu, leial eta zerutiarra. Ikasleek kurtsoan zehar *Garoa* eta *Kresala* irakurri behar dituzte, eta hitzez hitz eta orriz orri ikasi, derrigor, nota on samarra atera nahi badute. Dena dela, euskal egunkari lehenaren sorrera-jai, festa eta ospakizun eguna zenez, inor gutxi harritu zen haren hitzekin, edo inor gutxik egin zuen harritu planta, giroak, nolabait esateko, adostasunera bultzatzen baitzuen, erlijio, iritzi eta hitz kontuetan, baita jan-edanetan ere. Apaizak esan zuen, ahots hunkituaz, ahots trabarik gabeaz, ahots askatuaz, ezen gure Jainko onak ez zuela bidaliko ez tximistarik, ez ekaitzik, ez erauntsirik euskararen salbaziorako zen paperezko itsasontzi hura urperatzeko; alderantziz, gure Jainko onak, itsasoko bideak, berak sortuak izanik, ongi ezagunak zituenez, ez zuela gidatuko bere itsasontzi kuttuna ur haserre, gorri eta asaldatuetan barrera, itsaso bare, poz-iturri eta gozo-jarioan barrera baino. Ordurako, partaide seinalaturen batzuei, ordea, «ur» hitzak beren burmuinetan marraztutako ur irudiak itomen larria ekarri

zien eta, erdi zorabiatu-rik, euskaltzale puru, garbi eta nekaezin haiek egunkariaren egoitzaren ondoko taberna antzinako eta betikora abiatu ziren, beren buruak ardoarekin nahastera eta zikintzera, biak, ardo eta gizaki, bat eta bera izan arte, gorpuztaren eta ardoaren miraria osatu nahian bederen. Baina Balerdi, gizon zuhurra izaki, bizkarrean pilaturik zeraman irakasle-eskarmentuagatik, deabruaren aurka egindako borrokengatik bainoago, ohartu zen haien desertzioaz, eta ikusirik haien pausoak ez zihoazela tabernara baino, eta sumaturik haien bidea besteek ere jarraitzeko asmoa izan zezaketela, hitzei abiadura handiagoa eman zien, esanaren belari putz eta putz eginez, eta, orduz geroztik, ez ziruditen hitzak, suziriak baino. Ez zen gehiegi luzatu, apaiz hark ere ura baino beste klase bateko edariak nahiago baitzituen, bistakoa zenez. Izerdi tanta txiki baina borobilak isurtzen zitzaizkion bekoki ongi plantatutakotik, frontoi haragitsutik behera. Olatu bigunen modura aurpegian barrena ibili zitzaizkion eta ahoan hil ziren: hitzen portu, babes eta gaztelumendi den horretan. Amaitzeko, egunkari berri hura Noeren ontzia bezalako zela esan zuen, euskaltzale arraza eta leinu guztiak bilduko zituen, inorgal ez zedin, badaezpadako euri-erauntsi, tifo eta zopernarik baletor ere. Gure arteko bat, Martin Irizar, poeta donetsia bera, sentiberatasun guztien mintegi, soro eta mandioa, *Mi-naren muin* poemategiaren egilea, negarrez hasi zen, zirrargatik. Benetan malko-zaparrada izan zen harena, zaparrada guztien inspirazio, iturri eta erreka-zulo. Ikaratu ginen denok, eta Balerdi bereziki, letren maisu hark bide okerretik bultzatuko ote zuen bera, Jainkoa lagun, zuzenekatik eramaten saiatzen ari zena. Bistakoa zen trago txarra pasatzen ari zela apaiza, eta, ho-

rrek, areagotu egin zuen haren baitan trago onaren desira. Gero, korrika alde egin zuen, guztiok bezala, tabernara. Ni ere bai, zuzendariarekin batera. Ordurako oso gogobeterik nengoen nire lanbide berriarekin, euskal liburuen iruzkinak egitekoarekin, uste bainuen nire txoko eta zirrikitutik galera baino mesede gehiago egin nezakeela, idazleei jakinaraziz zein ziren zuzendu beharreko lerroak eta zein ez; merezi zuena goraiatu eta harrotuz, eta merezi ez zuena, etsipenera bultzatzeke, tristuraren bazka mingotsa afaltzera behartzeke, umiliazioaren pozoia edatera emateke, beheratu eta apalduz. Gazteagoa, fededunagoa eta sinestunagoa nintzen: euskaldunagoa.

Tabernan aparteko toki batean jarri ginen Luis eta biok. Taberna beteta zegoen arren, edariak zerbitzatzen zituen mutila gu ikusi orduko hurbildu zitzaigun, seguru asko ezaguna zitzaiolako euskal egunkariko zuzendaria, ni baino gehiago, ausaz. Aspalditik nuen Luisen ezaguera, eta beti izan dut berarekin argi hitz egiteko konfiantza nahikoa, oraindik ere. Horrek ez du esan nahi burura etorritako lehen kontua esaten geniola tupustean elkarki; ez, bata besteari genion errespetuagatik, zuhurtziaz jokatu ohi genuen, ez ausardiaz. Bazterrean uzteke biontzat nahasgarriak izan zitezkeen gaiak, ihes egiten genuen gure artean zabalduta zegoen jatortasunetik, bestearekin ondo geratzeagatik besteak entzun nahi lituzkeen kontuak esateko joera simple eta arruntetik. Nik Luis miresten nuen, eta berak mi-resmen horren ordainez laguntza eskaini zidan.

Garagardo bana hartu eta mahai batera joan ginen. Luisek eskuko telefonoa agerian utzi zuen, mahaiaren gainean. Ezaguna nuen keinu hura. Banekien lehentxeago ala geroxeago deiren

bati erantzun beharko ziola eta orduan amaituko zela bion arteko elkarrizketa. Aparatua erlojuaren modukoa zen; niretzat zeukan denbora adierazten eta zenbatzen zuen.

—Ez dakizu ondo non sartu zaren, Alberdi —esan zidan.

—Noeren ontzian, Luis, apaizak esan duenez. Eta horiek, badakizu, ez dute sekula gezurrik esaten.

Buru-keinua egin zuen eta, une batez, barre egiteko zorian izan zen. Eutsi zion, ordea, tentaldiari. Egunkari-zuzendari batek, areago euskal egunkari berriko zuzendariak, euskararen itsasontzirik ederrenaren kapitainak, inongo ekaitzek hondora ez zezakeenaren gidariak, ezin zuen jendearen aurrean barre egin, nahita ere. Badago euskaldunen artean euskararen kontuak, alegia hizkuntzarenak, fede kontuak balira bezala hartzeko joera, izan ere.

—Noek ezagutu izan balu idazle jendea, ez zukeen bat bera ere ontzian sartuko. Erruki ditut, zurekin tratatu beharko dute.

Luisek idazle jendea ezaguna zuen eta tratatzen zuen, bera ere, aspaldi, idazle izan zelako, eta sari garrantzitsu bat irabazi zuelako, Fortunak hala nahita. Eleberri bat argitaratua zuen, *Dolorearen Kolorea*, oso esistentzialista nire iritzian, poesia prosaren ekipajea gordea, kontrabandoan bezala, baina gainkargarik gabe. Kritikari postuan lausengari ofizioa zuen batek, Adrian Zelaiak, hain zuzen, Camusekin konparatu zuen, gurean barrukoa kanpokoarekin konparatzeko dagoen jarrerari jarraiki. Kanpoko goraipatzen da, Camus edo Sartre, berdina da, eta haren parean, konparazio erretorikoaren bidez, guretako bat sartzen da. Bere garaian, norbaitek irakurriko zuen liburu hori, hala sinetsi nahi dut, baina gaur egun galduta dago haren oroitzapena, galduta dauden bezala haren aleak soto heze, berdaxka eta

perretxiko-gai batean. Gaur egun, izan ere, euskal idazle txar bat aurkitzea zaila bada (denak baitira abil, animos eta jentil), are zailagoa da euskal irakurle on batekin topo egitea.

—Errukitzekotan, nitaz errukitu, ezta? —esan nuen.

—Zuk ez duzu sufritzen, haiek bai —esan zuen—. Sufritzen dute beste idazle batek sari edo kritika gehiago eta hobeak jasotzen dituenean. Sufritzen dute beste idazleen lanak goraipatzen dituztenean, eta bereak ez. Sufritzen dute antologietan azaltzen ez direnean, edo azaltzen ez direlako; beste baten izena ikusten badute beraiek nahi luketen tokian. Sufritzen dute, liburu azokan daudelarik, liburuak sinatzera datozenak gutxi direlako, bakarren bat, eta bera, etxekoa izateagatik, behartua; eta ikusten dute aldameneko idazleak irakurle ejertzito bati aurre egiten diola, lumaz armaturik, eta asaldatzen, sumintzen eta erretxintzen dira. Sufritzen dute hitzaldiak ematera gonbidatzen ez dituztelako, edo gonbidatzen dituztenean mahai inguruetara, esate baterako, beren mailari ez dagokienekin aritu behar dutelako. Eta sufritzen dutelako idazten dute; eta idazten dutelako, sufritzen dute. Eta idazketa sufrimendua zaie.

—Edo sufre-mendi —erantzun nion.

—Ez txisterik egin euskal idazleei buruz, Fermin. Umorea liburuan dute bakarrik.

Egon nintzen esatekotan, txisteari jarraipena emate aldera, umorea ez zutela buruan. Begi eman nion tabernari. Berehala ikusi nuen kuadrilla bat, idazle jendea, giro alaian berriketan. Inork ez zuen pentsatuko sufritzen ari zirenik. Txantxa eta festa zerabilten elkarren artean, mintzo eta imintzio ugari. Sufrimendua ere liburuan, antza.

—Oso pozik ikusten ditut bada nik.

—Ez fidatu. Herra barrenean daramate.

Telefonoaren soinua entzun nuen, Mikel Laboaren doinu bat, maitasuna eta bazterrak gogora ekartzen dituen, txit bukolikoa. Luisek aparatua hartu zuen eskuan. Agur-keinua egin zidan. Banekien: amaitua zen niri eskainitako tartea. Gara-gardoa edan eta altxatu nintzen, kalera irteteko. Idazleen lerroa zabaldu egin zen erditik. Bat bitan banatu zen, niri pasabidea egiteko. Isilik zeuden, atezuan, tenk. Julio Zesar etorri zitzaidan gogora, Senatura bidean paper bat eman zioten, «Gorde zaitez martxoaren 15az», idatzita zuen. Ez nuen jakin orduan idazleen ongietorria zela, baina ez jauregira, urkamendira baizik. Zesarrek ez zion gaztiguari jaramonik egin, ez baitzuen ohartxoia irakurtzeko astirik izan, eta hil zuten, jakina den bezala. Era berean, susmoa nuen idazle haien artetik igarotzean larrutuko nindutela, kontuz ibili ezean. Baina Julio Zesar bezala sentitzen nintzen orduan. Euskal letren Tirano eta Enperadore eroso, erotasunik gabea.

– 6 –

2013ko apirilaren 15ean, urtebete geroago, izan nuen azken elkarrizketa Luis Berriarekin.

Ordurako argitaratuta neuzkan egunkarian berrogeita hamar iruzkin, berrogeita hamar libururenak, matematikak okerrik egiten ez badu. Norbaitek pentsa lezake gutxi direla, kontuan harturik euskal liburugintzaren produkzioa ia infinitua

delatzen du dena. Irakurriko dituen baino liburu gehiago kaleratzen ditu; gobernatzen ditzakeen baino sukaldari gehiago fabrikatu ditu; behar dituen baino hitz gehiago sortzen ditu; erabat errotzeko jasan zezakeen baino min latzagoa eragin du; onargarria den baino harrotasun handiagoa erakusten du. Aberri bat sortu du, bere espazioan kabitzen ez dena; egiak baino askoz estimatuagoak ditu mitoak, eta mitoak baino sendoagoak gezurrak, eta gezurrak baino borobilagoak ipuinak. Inor gutxi eferosi nahi lukeen historia du salgai.

Generoei zegokienez, horietatik hamabost poesia-liburuak izan ziren; beste hamabost, eleberriak; bost, entsegu-liburuak; bost sukaldaritzari buruzkoak; bat, antzerki-pieza laburrez jostia; bederatzi, itzulpenak, tartean Terry MacArthurren *Nik ere lorea izan nahi nuen*, nire iruzkingintza garaian kaleratu zen libururik txukunena eta ederrena: *punk* estilo hutsa. Itzultzailea Markos Garzia da, eta liburuaren aurkezpen egunean elkar ezagutu genuenean Donostiako San Jeronimo liburutegiko kobazuloan, leku egokia liburuaren albiste emateko, antzinako kristauen erakoak baitira euskal komunikabideetako kazetari kulturalak, gutxi eta leialak, alegia fededunak. Orduan harri-garria egin zitzaidan itzultzailearen eta egilearen arteko ezberdintasuna. Markos gizon herabe eta moldaeraza, tolesgabe eta isila da. Terry, ordea, lotsagabe, ikonoklasta, disidente, egoskor eta ganberroa, Jon Strummer bat, langile auzoan sortua. Liburu-etako atzealdeko orrietan idazleei buruz idazten diren ohar biografikoek inolako sinesgarritasunik badute bederen, Terry MacArthur atxilotu egin zuten, behin erreginaren etxean sartu eta bera familiarekin batera telebista programa bat ikusten ari



zelarik, teleserie bat, manifestu poetiko bat irakurri nahi izan zuenean. Albistea, era horretan kontatuta, ez zen oso asaldagarria izango, detaile txiki bategatik ez balitz: Terry Mac-Arthurrek larrugorrian egin zuen sarrera erreginaren etxeko egongelan. Eta, Londoneko egunkari hori-koloreek geroxeago argitaratu zuten, erreginaren begiak Terryk buruan zeraman gandorrari baino bortitzago iltzatu omen zitzaizkion haren hankarteko masta zutean bilduta zegoen *union jack* banderari, gune hartan dantzatzeko gogoarekin ibilki. Mandelstam baino zorte hobekoa izan zen. Hark, hil saria irabazi zuen, Stalinentzat idatzitako poema baten kariaz. Diktadoreak oso poesiazaleak izan dira, bistakoa da. Caligulak poeta bat kondenatu zuen hiltzera, errima kaxkar bat medio: justizia poetikoa, agian. Ez dakit bestelako justiziaren zentzurik ba ote duten diktadoreek gobernuan, baina poesia kritikaririk zorrotzenak direla iruditzen zait. Terryk, gizon tematia denez, ez zuen etsi manifestu hori irakurri arte. Azkenean, komisarian lortu zuen, polizia entzule gisa jarrita; hori bai, oinetatik bururaino jantzita, eta Britania Handiko bandera erraldoi bat alboan, behar den bezala. Goizean libre utzi eta alde egin zuen, *pub* batera, garga-gardoa-edo edatera.

Urte hartan ez nuen adiskide askorik egin idazle kofradian, letren arrantzaleen artean, Maria Zubillaga, *Felice*, eta Anaisabel Zubiri, *Milena* izan ezik. Etsai, kontrario, arerio edo nahi duzuen, gainerako guztiak. Nik, pertsonalki, idazleen arteko inori ezer kaltekorik egin ez nionez, tratu arrunta eskaintzeaz gainera, pentsatu nahi dut iruzkinetako testuetan ulertu nahi zutena tratu txarrekotzat hartu zutela, ez zutela irakurri nahi zutena aurkitu. Ordainez, merezi nuena eman zidaten, haien

ustez. Oraingo egoeratik begiratuta, ordea, ez zait iruditzen zu-  
zen jokatu zutenik. Baina harritzen naiz lehenago horretaz ez  
konturatu izanaz. Izan ere, haien ezagutza nuenetik, urtebetean  
haiekin tratatu ondoren, banekien nolakoak ziren. Ez dut  
neure burua engainatuko. Ez dut esango abisurik hartu ez  
nuenik. Luis Berriak lanean hasi aurretik gaztigatu ninduen,  
idazle jendearekin kontuz ibiltzeko eta adi egoteko esanez.  
Dakienak badauki. Zesarrek ere, abisuei kasu ez egiteagatik, bere  
azkentzea ikusi zuen moduan ikusi nuen nirea, iruzkinen sai-  
lean. Idazle jendea, nor-nori-nork baten kariaz elkarren artean  
ika-mika eta elkarrengatik gaizki esaka ari dena (ofizioko inork  
entzuten ez dituenen; bestela, beren artean dena baita lau-  
sengu eta sosegu), batu eta matxinatu egin zen nire kontra, ino-  
ren soroetan sartzen den basapiztia banintz bezala. Idazle jen-  
deak, egia bera ere okertu, bihurritu eta harilka dezakeenak,  
egia engainuaren enkantean sos baten truke saltzen duenak, niri  
egia ez esatea leporatu zidan. Idazle jendeak, adiskideen libu-  
ruak soilik, adiskide diren bitartean, irakurtzeko ohitura due-  
nak, batez ere bi idazleren bi liburu gorai patzen nituela kriti-  
katu zidan: *Feliceren Elkarrizketak* eta *Milenaren Sonetoak*.  
Idazle jendeak, «konpromiso» hitzaz boterearen jabe denari edo  
boterearen altzoan gozoro eta zoro-gogoz lo-susta egiten due-  
nari buztana dantzatzea adierazi nahi duenak (diru laguntza-  
ren bat arriskuan bada) konpromisorik ez nuela salatu zidan,  
aipatutako bi egileekin izan ezik. Idazle jendea, inoren aurrean  
besteen liburuak epaitu ez, baina bakardade latzak pizten duen  
irudimenean haiek erretzen dituen, epaitu behar nindutela  
esaka hasi zen. Kondenatu ninduten. Dena, Zesarren aurkako az-  
pijokoan bezala, poliki joan zen, eta denen agerian eta jakinean.

Halako batean, ez da aspaldi, kontu txarrek ez baitute iraungitze-datarik, sekula batekoak edo denboraren beste ezpalekoak badira ere, Euskadi Irratia entzuten ari nintzen. Berehala ohartu nintzen elkarrizketa egiten ziotela Dionisio Belañeta poetari, estrainekoa zuen kultura programa baten kariaz. Belañeta ez da edozein, poeten artean gurtua eta limurtua, eta ulertu nuen kritikariok idazle afrutatuak ginela esan zuela, oso adi ez nengoelako, egia esan. Kanpotik eta barnetik poztu nintzen, ez nuen halako losintzarik espero Belañetarengandik, are gutxiago haren poema liburua, *Inoiz espero ez denean* izenburuduna, infernuko atariraino jaurtia bainuen. Pentsatu nuen halako hitz gozoak esaten zituen poeta bat ezin zitekeela pertsona gaiztoa izan, Belañetaren gaizto fama eta errealtatea bide ezberdinetatik zihoazela, ez zela egia txikitari izandako traumaren bat oraindik bizirik eta haragi gorri zeukala, eta haren baitan gorrotoak, bekaizkeriak eta sumintasunak ohe lumazkoa hartua zutela, maitasun, adiskidetasun eta bozkarioa txakurraren txokora bidali ondoren. Barkamena eskatzekotan egon nintzen, baina, orduan, errepikatu zuen esaldia, alegia kritikariok idazle frustratuak ginela. Eta gero, duintasuna aipatu zuen, kritikari batzuk idazleen duintasuna zapaltzen ari zirela, eta letrak eta idatziak eta liburuak gal ditzakegula, baina duintasunik sekula ez, gizakiaren eta aberriaren eta naturaren eta nik ez dakit zer gehiagoren dohaina baita. Bazirudien «duintasun» hitza aipatze hutsak elkarrizketa-egilearen bihotza ukitu zuela, zainetaraino hunkituz, mutu geratu baitzen une batez, eta ez dago munduan ezer zirrargarriagorik mutu geratzen den esataria baino. Xabier Letek Xalbadorren oroiminez albardatutako kanta ipini zuten, «Non hago? Zein larretan?», eta irratia itzali

nuen. Eraso andanaren hasiera izan zen. Handik hilabete batzuetara idazle letradun eta kopetadun batzuek manifestu bat sinatu zuten, «Kritikoen aurka», eta gure egunkarian argitaratu, alegia Berria zuzendari duen *Ahotsa* izenekoan, eta horrela frogatu nahi izan zuten ez zela egunkarian ahotsik falta, ezta ahots ezberdinik ere. Esku askoren artetik pasatako testuen sintaxia zuen: zirriborro hanpatuaren iluntasuna eta bezperan egositako ogiaren mamia, tartean. Inor ez aspertzearren, ez dut osorik ekarriko hona. Laburbilduz, manifestu-sinatzaileek zioten baieztatu ahal izan zutela gero eta ageriago kritikaren helburua egunetik egunera ez dela literaturaren kalitatearen gaineko iritziz zintzoa ematea, baizik eta kritikarien apeta, maitakeria eta nahikundearen arabera sistema literarioa erakitzea. Ez ninduen manifestuak bereziki mindu. Idazleak, banaka hartuta jasagarriak bazaizkit ere, denak batera elkarturik aspergarriak dira, harri bera mendi magaletan behera eramatea bezain astuna, eguna joan eta eguna etorri esan nahi dut, tai gabe, eternitate betikoan. Ezjakinak dira, jakin gabe; kontakatiluak dira, baina ez dute onartuko; harroak dira, umilaren plantak hartuta, eta ez dakitena mespretxatzen dute; eta dakitena ez dakite. Erantzutekotan egon nintzen zalantzaz beterik, esatekotan idazle haiek guztiek egiten zutena ez zela literatura, hiztegiaren gonbitoa baizik; ez zela letren festa, letren hileta baizik; haien poesia eta prosa ez zela askea, norberaren zilborrari lotutako errota-harria baizik. Isilik geratu nintzen, nire samina elikagai. Hala ere ez nion Berriari deitu, sinesturik bera ere ataka gaiztotik pasatzen ari zela. Nire lanarekin segitu nuen. Banekien, dena dela, manifestuak ondorio gordinak ekarriko zituela, egoera deseroso zatarra eragin baitzuen euskal

kulturaren bazterretan. Telebistako informatiboan albisteen buru izan zen, pentsa. Beraz, senak esaten zidan, berak daukan benazko indarraz, ezin ibiliko nintzela luzaroan ezer gertatu izan ez balitz bezala, neure burua ezkutatuz eguneroko lanaren labean, ezin jasango nuela inguruan sortuxea zen giro nahasi itogarria, laino beltzek euria bezala, letrazko lintxamendu eta jipoimendia ekarriko baitzuen segidan. Baina, senaren kontra, manifesturik zabaldu ez balitz bezala jarraitu nuen. Senak arrazoi; erreka jo nuen. Azkenean, Berria bera izan zen deitu zidana.

Ez ninduen egunkariaren egoitzan hartuko. Bezperan telefonoz deitu eta Parte Zaharreko *Urumea* tabernan bildu ote gintezkeen galdetu zidanean, lasai hitz egin nahi zuela argudiatuz, gaiztotik okerrera igaroak ginela sumatu nuen. Kezkatu nintzen eta gaua osorik igaro zitzaidan esna eta erne. Nahi eta ezin, ezin nahita ere begiak itxi, ezta ordubeteko atsedena hartu ere loaren baratze bigunean. Beraz, Berriarekin elkartzeko nintzen egunean ez nengoen umore oneko. Oinez jaitsi nintzen etxetik, Ezkiaga kaletik, Egiako aldapan barrena Kalbarioko bidea balitz bezala, pauso bakoitza neke latz zitzaidala, oinpeko zorua labainkorra ez ezik, labanez ere egindakoa balitz bezala. Portu aldean ibili nintzen, denbora pasa, eguerdian geratuak baikinen hitz egiteko. Itsasoa bare zegoen eta uhartea argiz inguraturik ikusten zen, narotasun irudia eskainiz. Horrek, ordea, ez zion lasaitasunik ekarri nire barneari. Tabernara joan nintzen eta zain nuen laguna, barruko mahai batean eserita, egunkaria irakurtzen. Kafe beltza eskatu nion zerbitzariari eta Berriaren ondora hurbildu nintzen. Egunkaria tolestu zuen, esku bat eskaini zidan, bestearekin telefono aparatuarekin ari

baitzen lanean. Bion artean ipini zuen aparatua, muga eta soinu-  
nuzko hesi. Kafea ekarri zidaten.

—Zer gertatu da, Luis? —galdetu nion.

—Kexak izan ditugula, Alberdi.

—Nobedadea izango da. Kexa-herria da hau. Kexatzen  
dira handiak eta kexatzen dira txikiak; kexatzen dira lodiak eta  
kexatzen dira flakoak; kexatzen dira tristeak eta kexatzen dira  
alaiak; kexatzen dira itsusiak eta kexatzen dira guapoak.

—Nora joan nahi duzu?

—Denak kexatzen dira, Luis, batzuek ez dutena nahi du-  
telako, eta besteek dutena nahi ez dutelako.

—Utzi ironiak, Alberdi. Badakit hildakoak ere kexatzen di-  
rela gurean, badakidan bezala askok hil arteko kexa besterik ez  
dutela izan bizi izan diren bitartean.

—Orduan, nire lanaren kexa al duzu?

—Oso kontu serioa da—. Kopetilun zegoen Berria. Tele-  
fono-aparatuarekin jolasean zebilen, urduri.

—Larrarte kexatu egin da.

Larrarte kexatu bazen, kontu sakona zela pentsatu nuen. Ez  
baitzen Larrarte edozein: euskal letren kapitain, euskal eleberria-  
ren maisu, euskal poesiaren aitzindari; euskal antzerkiaren zu-  
zendari; euskal kulturaren gidari; euskal euskararen euskaltzain-  
buru. Ez zen edonor ere, testu liburuetan «gure Dante», «gure  
Faulkner», «gure Shakespeare», «gure Molière», «gure Goethe» dei-  
tzen zioten, eta ez dakit nolatan ez zen Larrarte erotu hainbeste  
gizon argi eta burudun bere baitan armonian izateagatik.

—Zein da motiboa?

—Iraintzat hartu du zuk haren azken liburuaz idatzitako  
iruzkina.

—*Garitik Garora* oso liburu txarra da! —esan nion ia oihuka—. Ez dago nondik hartu, aingirak bezala ihes egiten du esku artetik.

—Iritzi hori duzun kritikari bakarra zara. Gainerako egunkarietan kritika aldekoak jaso ditu.

—Kritikarien artean ere analfabeto asko dago. Ahoa betetzen zaie Bloom eta Todorov izenez, eskarmentuko erosle bati *Todotodo* eta *Eroskiz* betetzen zaion bezala. —Eskuak elkartu zituen, isilik geratu zen, nik noiz bukatuko. Haren jarrera abegikorrak ez zion galgarik eman nire adoreari—. Literatura zientzia balitz bezala hartzen dute eta literatura ez da zientzia, esistentzia baizik. Edo pedante jarri nahi izanez gero, erresistentzia.

—Pazientzia eduki behar da zurekin gero! Niri ere gehiegizkoa iruditu zait Larrarteri egindako kritika —aitortu behar dut esandakoak jo egin ninduela bihotzaren lur malguan—. Esatea ere Larrarte Txomin Agirrerren akolitoa dela! Aipatzea ere haren prosa Atacamako desertua baino lehorragoa dela! Nori eta euskal letren patriarkari!

Une horretan aitortu behar izan nion neure buruari beharbada esajeratu egin nuela. Nire iritzian Larrarte ez zen iristen Txomin Agirrerren akolito izatera ere. Isildu egin nintzen.

—Oso haserre dago. Eta bai berak eta bai argitaletzeko arduradunek esan didate zuk egunkarian segitzen baduzu, litekeena dela gurekin dituzten harremanak haustea.

—Gurekin? Nor gara gu?

—Ez naiz zutaz ari.

Berehala ulertu nuen Berria egoera gaiztoan jarri zutela. Banekien zer esango zuen.

—Ez duzu gehiago iruzkinik egingo, guretzat behintzat. Baina ez zara lanik gabe geratuko.

—Zer egitea nahi duzu?

Orduan eman zidan Madrilera etortzeko aitzakia, eta zori ona, oraingo ikuspegitik begiratuta. Jakako poltsikotik erdal egunkari orri bat atera zuen. Mahaiaren gainean zabaldu eta esku-keinu batez irakurtzeko eskatu zidan. Gizon bat hilda aurkitu zutela irakurri nuen, Madrileko Lavapiés auzoko kale kantoi estu batean. Gizonaren izen-abizenak ere ematen zituen, Sebastian Saldias. Kalearen izena ere bai, Espino, alegia Elorri. Papera mahaiaren gainera bota zuen.

—Nolatan ez dute berri hori hemen zabaldu?

—Noiztik ez zenuen ikusten?

—Desagertu zen egunetik.

—Desagertu zenetik?

—Hala uste dut.

Sebastian Saldiasen azken urteak kontatzea izango zen nire lana. Erbestera bidaltzen ninduen, *Felice* eta *Milenaren*-gandik urruti. Une hartan hori soilik zitzaidan mingarria.

—Noiz hasiko naiz?

—Irailetik aurrera. Denbora duzu Madrilera joan, etxea aurkitu eta hango girora egokitzeko. Pasa zaitetz aste honetan artxiboan dugun dokumentazioaren bila.

Altxatzera nindoan, alde egiteko. Mikel Laboaren doinua entzun genuen. Berriak telefono aparatuaren pantailari begiratu zion, dei egilearen nortasuna jakiteko. Gero, niri. Burua jiratu zuen, nik ez ikusteko. Ahoa estali zuen, nik ez entzuteko. Altxatu eta kanpora joan zen, nik ez sentitzeko. Ez zen dei luzea izan. Apenas minutu erdia, kalkulatu ahal izan



nuenez. Barrura sartu, eseri eta hortz artean irribarre lerro luzea erakutsi zuen, zeruertza balitz bezala. Aparatua mahaiaren gainean ikusi nuen berriro, bera eta nire arteko muga zehazten eta zedarritzen.

—Joan aurretik, galdera bat, Luis. Nork hartuko du nire tokia iruzkin sailean, jakin badaiteke?

Irribarre lerroa zabaldu egin zen.

—Anaisabel Zubirik hartuko du zure tokia. Bera izan da deitu duena.

—*Milena* traidore hori hemen al da? —oihukatu nuen, konortea galdu aurretik. Gogoan dut portuan bertan dagoen larrialdi zerbitzuko aulki batean esnatu nintzela, sendagilearen konpainian, Kafkari buruz hizketan.

— 7 —

MacArthurrek Ingalaterrako erreginari irakurri nahi izan zion manifestua, Markos Garzia itzultzailearen arabera:

«Maiestatea, Jainkoa miretsiko banu, *God save the queen* oihukatuko nizuke, zure mendeko guztiek bezala. Baina ez dut orain Jainkoarengan sinesten. Txikitan ezagutu nuen, ikusi gabe. Goiz batez, aita komunera joan eta atea itxita zegoela konturatu zen. Harrituta geratu zen, ia beti bera izaten baitzen lehena sartzten. Jo zuen atea, eta inork erantzuten ez. Jo zuen berriro eta komunitetik halako soinua iritsi zitzaion, barrua ez dagoela hutsik adierazten duena. “Nor dago barruan?”, galdetu zuen aitak. Eta ahots mehe batek erantzun zion “Jainkoa”. Denoi deitu zigun

etortzeko eta han geratu ginen atearen aurrean, zer egin ez genekiela. Aitak presa zuen, ontziolara lanera joateko; amak presa zuen, sukaldari lanetan aritzen zen jatetxera joateko; nire arreba Carol-ek presa zuen, enplegatuta zegoen denda ireki behar baitzuen. Ni nintzen presa ez zuen bakarra. Egun hartan ez genuen eskolarik. “Zer egin behar dugu, Silvie?”, galdetu zion aitak amari. “Ez dakit, John”, erantzun zion amak. “Seguru zaude hor barruan Jainkoa dagoela?”. “Galde egiozu zuk”, erantzun zion aitak. Eta amak galdetu zion: “Aizu, Jainkoa baldin bazara, atera zaitez komunetik, ez dugu berandu iritsi nahi eta”. Baina ez zitzaigun erantzunik iritsi. Norbait zegoela jakin genuen, iturri soinua iritsi baitzitzaigun. Orduan, Carol, pazientzia txikiko emakumea baita, alegia jenio txarrekoa, tresna-kutxatik mailu bat hartu eta sarraila joka hasi zen, puskatu arte. Barruan, ordea, ez zegoen inor, ozpin usaina baino, Jainko usaina. “Hau kiratsa!”, esan zuen amak, eta lixiba hartuta komuna goitik behera garbitu zuen. Une horretan galdu nuen Jainkoarenganako miresmena. Usain txarra zuen Jainkoa ezin zitekeen ona izan. Hamar urte nituen.

»Handik urte batzuetara, zure ministroek, sadiko kuadrilla bateko partaideek, erabaki zuten aitak lan egiten zuen ontziola ixtea, galera handiak zekartzalako; eta aita lanik gabe geratu zen. Gaztea zen artean, berrogeita bost urte. Amak esan zion ez kezkatzeko, ez zitziola zereginik faltako. Baina aitak, ontziolako lanaz gainera, ez zekien ezer egiten. Ez zekien sukaldeko lanak taxutzen; ez zekien etxeko ardura eramaten; ez zekien seme-alabak zaintzen. Lagundu nahi zuen, baina ez zekien laguntzen. Gure amak esan zion zerbaitekin entretenitzeko, eta gure aita auzoko lore-dendara joan eta haziak eta

buztinezko ontziak ekarri zituen. Etxea lorontziz bete zuen. Udaberrian etxea lorez beteta genuen, klase guztietakoak, arrosak batez ere, kolore guztietakoak. Usaintsuenak komunean ipini zituen, ama garbitzen saiatu arren, ez baitzen Jainko usaina erabat aienatu. Loreak bezala, aita, udan kiskaltzen hasi zen, eta, azkenik, minbiziak jan zuen, behetik gora. Hil zen, gorrotorik gabe, hala uste dut. Hileta-ospakizunetara lantegiko lagunak azaldu ziren. Zahartuta zeuden haiek, orduz lehen. Doluminak ematera etorri ziren banaka. Baina haien eskuak nirean sentituta, neuk eman behar ote nizkien irudituta zitzaidan. Ez dago batere edertasunik zahardadean, miseria eta usain txarra baizik. Hamabost urte nituen. Ingalaterra kanibala zela esan zuen batek, bere umeak jaten zituela. Etxeko loreak zaborrontzira bota nituen. Zaborrontzikoa burutik behera isuri nuen. Bataioa izan zen.

»Aita hil zen urte berean, Carolek etxetik alde egin zuen. Hogei urte zituen eta haurdu zegoen. Alex mutil-lagunarekin joan zen bizitzera. Alaba izan zuten, Grace izenekoa. Mutil-lagunak, ordea, ez zuen batere graziarik. Etxekoez arduratu beharrean, kanpokoez hasi zen kezkatzen, eta seme bat izan zuen gauero joaten zen pub-eko kamarera batekin. Banandu ziren eta Carol Grace hartuta Bostonera joan zen bizitzera, amerikano batekin. Oso gutxi dakit hari buruz. Ama, handik berehala hil zen, erietxe publikoan ikusi ez zioten gaitz batek jota. Burmuina lehertu zitzaion. Berarekin egon nintzen azken egunetan. Etxean ozpin usaina zabalduta zegoela, eta botatzeko lurrrin gozoa, hori zen haren jarduna. Besoetan hil zitzaidan. Oraindik ez zait erabat joan amaren orduko usaina, eta ez da gozoa. Carol ez zen hiletetara etorri. Telegrama bat bidali zuen

sentitzen zuela esanez. Auzokide batzuk eta aitaren laguneta-  
tik geratzen zirenak, lauzpabost, ez naiz oroitzen zenbat, bai.  
Aitaren hiletetan hitz egin zidanak berriro hitz egin zidan  
amarenean, dolumina ematerakoan. Ingalaterra krudela zela  
esan zidan, bere seme-alabak deserrira edo hilobira bidaltzen  
zituela. Hemezortzi urte nituen, eta nire barruko gorrotoa, kai-  
moilako txatar mendia baino handiagoa egin zen; portuko ur  
zikinak baino zikinago; auzoko garabia baino jasoagoa. Go-  
rrotoa, azken finean, arimaren zikinkeria baino ez da. Bakarrik  
nengoen, eta ez nuen nahi. Ez dago batere heroismorik ba-  
kardadean, izua eta usain txarra baizik.

»Erregina anderea: gorroto eta biok orduan bat ginen.  
Gorroto zintudan zu, eta zure familia, gorroto zintudan zu eta  
zure mundua, gorroto nituen zure ministro kanibal, krudel, zi-  
niko eta komedianteak. Gorroto nuen dena, baita neure burua  
ere. Gorrotoa nuen goizez, eta gorrotoa gauez, batez ere lokartu  
ezinda ibiltzen nintzen gauetan, ia denetan, ohean bueltaka so-  
segurik hartu ezinda nenbilenetan. Gorroto nuen, gorrotatu  
nahi nuelako. Gorroto nuen ez nuelako inor baino gutxiago  
izan nahi. Gorroto nuen itsu nengoelako, eta ez nuelako ikusi  
nahi. Ez nintzen bakarra. Auzoko hiru lagunekin, nire edade-  
koak, musika talde bat sortu genuen *The Hate*. Danny, Johnny,  
Kurt eta ni, Gorrotoa. Berehala, zure gobernuak, erregina an-  
dereaa, debekatu egin zigun jende aurrean jotzea, Ingalaterran be-  
deren. Guk ez genuen banderarik edo koranik erretzen, ez ge-  
nuen zure argazkirik puskatzen. Horrelako ekintzak egiteak  
esan nahi zuen bai bandera, korana eta bai zure argazkia ez zi-  
rela garrantzitsuak, bazirelako beste bandera, koran edo argaz-  
kiak, benetako garrantzia zutenak. Guk ez genuen halakorik

uste. Guk dena nahi genuen suntsitu, mundua, ludia, uniber-  
tsoa, galaxia, gu barruan noski. Sex Pistols-ek *Anarchy in the  
UK* grabatu zuten urte berean guk *Fucking Off* grabatu genuen.  
Abestiak bat bateko arrakasta izan zuen, eta belaunaldi baten  
himnoa bilakatu zen. “Izorra hadi, biluzik bahago/ erreginak  
ez hau jantziko”. Letra ezagutzen duzu, erregina anderea. “Izo-  
rra hadi, erregina/ hire bila joango gaitun”. Klandestinitatean  
bezala bizi ginen. Gure kontzertuak ahoz aho iragartzen ziren,  
eta joaten ginen aretoak beteta egoten ziren. Zure poliziak, erre-  
gina anderea, beti asmatzen zuen ordea non ari ginen jotzen eta  
han azaltzen zitzaigun. Gure jarraitzaileak borrokan hasten  
ziren eta guk alde egiten genuen. Jolasa zen guretzat. Sex Pis-  
tols-ekin konparatu gintuzten, Estatu Batuetara joateko gon-  
bidapenak iritsi zitzaizkigun, diru pixka bat egin genuen, eta  
gastatu ere bai, geure burua suntsitzen. *The days of wine and ro-  
ses* izan ziren, esaten den bezala. *Kill the Queen* grabatu ge-  
nuenean, Sex Pistols-ek *God Save the Queen* baino lehenago,  
hasi ziren gure arazoak. Gero jakin genuen Sex Pistolesek be-  
ren kanta gurea itzaltzeko atera zutela, gure eragina nolabait  
leuntzeko, beren burua zuritzeko. Zuk, erregina anderea,  
hogeita bost urte zeneramatzan erregina karguan, eta guri iru-  
ditu zitzaigun zilarrezko ezteiak ospatzeko modurik onena zu  
hiltzea zela. Sex Pistols-en kanta, gurearen aldean, maitasun  
aitorpena zen. Gorrotoa guretzat beharrezkoa zen bizitzeko.  
Haientzat ez. Zure abokatuek terrorismoaren aurkako legea  
ezartzea lortu zuten, eta kartzelara joan nintzen. Harrigarria  
egin zitzaidan taldeko bakarra izatea ziegara joan zena.  
Danny, Johnny eta Kurtek tratua egin zuten zure abokatue-  
kin, eta haiek kanpora eta ni barrura. Judasen arraza. Hogei

urte nituen. Ez dago duintasunik kartzelan, traizioa eta usain txarra baizik.

»Erregina anderea, dagoeneko ez zaitut gorrotatzen. Kartzelan nengoela, asko irakurri nuen. Hasieran nire gorrotoa sustatzeko irakurtzen nuen; gero, jakin-mina asetzeko eta, azkenik, neure burua aurkitzeko. Bibliatik hasi nintzen. Ez dakizu, erregina anderea, zenbat pasarte dauden liburu sakratuan gorrotoa gorai patzen dutenak. Liburu hori irakurriz ikasi nuen denak badauela bere sasoa, gauza bakoitzak bere garaia bizi duela eguzkipean, maitatzeko garaia eta gorrotatzeko garaia daudela; dena, sendoena dena ere aienatzen dela, hauts pinporta airean bezala. Biblia irakurri ondoren, Homero hartu nuen, kartzelako liburutegitik. Gero presokratikoekin segitu nuen eta liluraturik geratu nintzen Heraklitorekin. Badakizu, erregina anderea, Heraklitori ezizenez “iluna” esaten ziotela. Berak idatzitakoa da: “Den orenen aita da gerra, den orenen errege”. Baina, zin eginen dizut, jende gutxi aurkitu dudala bera baino argiagorik. Kartzelan urtebete neramanean, baratzezain kargua eman zidaten, nire jokaera ona sariztatzeko. Purrustaka hartu nuen hasieran, aitaren irudia etortzen baitzitaidan, lore artean azken urteetan. Paddy McCarthyrekin jarri ninduten, fama txarra zuen gizonarekin. “Zu zara erregina haserretzea lortu zuen mutila?”, galdetu zidan agur gisa. “Zu zara fama txarra duen gizona?”, galdetu nion erantzun gisa. Irribarre egin zuen.

»Erregina anderea, zure haserrea nire poza bilakatua zen garai hartan. Irribarre egin nion, beraz, McCarthyri. Galdetu zidan ea sekula lore bat ikusi ote nuen, eta aitaren historia kontatu nion. Berak ez zuen muzin egin, ez zen batere hunkitu, ez zitzaion aurpegiko zainik puztu. “Nire laguntzailea izango

zara”, esan zidan, eta lanean hasi ginen. Arratsaldero berarekin joan behar nuen baratzer. Bera eraikinetik kanpo zegoen, hormaz haratago. Baratzea baino negutegia zen, plastikozko paretez isolatua. Nik ez nuen behar handirik egiten, karroa bete baratzako tresnekin eta, hara iritsitakoan, hustu. “Ikasi nahi al duzu?”, galdetu zidan eta ezetz erantzun nion, ez nuela ikasi nahi. Bakean utzi ninduen. Nik, garai hartan, Montaigne hartu nuen irakurtzeko, entseguak. Negutegiko bazter batean esertzen nintzen, iturriaren ondoan, eta solasean hasten nintzen Montaignerekin, haren adiskidea banintz bezala. Noiz edo noiz, begia liburutik kendu eta McCarthyri begiratzen nion. Egun batean, gogoan dut, miresgarria egin zitzaidan tomateei zien maitasuna. Bat eskuan hartu, begiratu, zerbait esan eta laztandu egin zuen. “Ez dakizu zein delikatua den tomatea” esan eta tomate hura bera eskura ekarri zidan. Gozoa zegoen. Udazken hasiera zen eta eguraldi hobea egiten zuen kanpoan. Halako egunetan, kartzelara joateko bidea luzatu egiten genuen. McCarthyri natura gustatzen zitzaion; niri ez, ez baitzidan ezer eskaini gustagarri izateko. Baina, aitortu behar dut, garai hartan, testua hartu eta begiz laztantzen nuela. Montaignek adiskidetasunaz idazten du, baina nago maitasuna adierazi nahi duela. “Arimak batu eta nahastu egiten dira elkarrekin” idazten du. Zer pentsatua ematen du maitasunak, batez ere kartzela batean. Beste hirurekin nengoen ziegan eta esan dezaket hutsik egiteko beldurrik gabe haiek maitasun handia ziotela... gorrotoari. Haiek gorrotoa amaren bularraren esnearekin batera edan zuten, eta gorrotoarekin hazi ziren. Ez zuten gorrotorik gabe bizi nahi eta ordu oro aritzen ziren indar suntsitzaile hura nola bideratuko. Haien esku balego, Ingalaterra

erdia hilik egongo litzateke, milaka moduz gainera, gorrotoaren arma bakarraz. Haien ona besteen gaitza zen; haien desira besteen zoritxarra; haien gozamina besteei mina egitea, ez inporta nola. Ondo hartu ninduten, hasieran, baina baratzezainarekin lagun egin nintzela jakindakoa, fama txarreko gizona baitzen, aldatu zen haien jokaera. Hala ere errespetu pixka bat bazidaten, gure errepertorioko doinuak kantatzen baitzituzten. Gorrotoa, ordea, indar naturala da kartzelan, berez doana eta berez sartzen dena. Ozpín usaina du, gizonen izerdiak bezala. Bukaeran, trasteak jaso, karroa bete eta gure tokira joaten ginen. Baratzeke fruituak sukaldeko biltegian uzten genituen, baina ordurako tomate eta frutarik onena janda izaten genuen. Egunak igaro ziren, konplikazio handirik gabe, nik Montaigne irakurtzen nuen, eta McCarthy baratzea.

»Denak, ordea, bere bukaera du, erregina anderea. Montaigneri azken irakurketa eman nion arratsalde berean amaitu zen McCarthyren bizitza. Mintegitik biltegiara gindoazela, ziplorori zen. Erietxera eraman eta han artatu zuten arren, ez zen bere onera etorri. Bihotzak ez zion erantzun, seguru asko, haren bihotzak erantzukizun handia zeramalako garraioan. Hori gero jakin nuen. McCarthy ez zen nik uste nuena, baina kartzelan inor ez da uste duguna, gizarteak zer den erabaki duena baino. McCarthy niretzat kartzelan zegoen gizonik sentikorrena zen, lorea bezain. Baina, hil eta haren gorpua lurrari eman ondoren, jakin nuen, gau batez, emaztea eta bi alaba erre zituela, lo zeudela, etxeari su emanda. Zergatik ote, ezin jakin. Ekintza deitoragarri hori burututakoan, gorrotoz josita baldin bazegoen, nik ezagututakoan ez zitzaion arrastorik geratzen. Ez dakit gizarteak barkatuko ote zion egindakoa, baina nik bai.



Itzul gaitezen Madrilera, Lavapiéseko apartamentu txikira. Etorri nintzanean ez nekien luzea ala laburra egingo ote zitzaidan bertako egonaldia. Maiatza zen, lehen esan bezala, hogeita hamarra, trena hartu nuenean. Nire ohiturari jarraiki, astia dezente eta sobera nuela geltokira iritsi eta nasan ibili nintzen gora eta behera, jendearen artean, batzuen gorputzak eta besteen ekipajeak ekidinez. Banekien Anaisabel ez zela etorriko ni ikustera, ni agurtzera, bere azken poema niri irakurtzera. Hala ere nahi nuen, desiratzen nuen, gutiziatzen nuen. Anaisabelek traizionatu ninduen, baina barkatu egin nion, traizionatu aurretik ere josia zuen soinean, oihalezko domina balitz bezala, nire geroko barkamena. Maria galdu egin nuen, baina berriro bera aurkitzeko gogoia piztuta neraman, Joko Olinpikoetako su-ontzia bezala. Bai batari zein besteari, esango nizkien hitzak ere erreparatu nituen, modako antzerki bateko gidoi edo *Kalez kale* telesaileko kapitulu bateko elkarrizketa balitz bezala. Sentimendurik ez dagoenean, sentimentalkeria nagusitzen da; arrazoimenik lantzen ez denean, borondatekeria islatzen da, hautsitako ispilu batean bezala; poesia izpirik ez duen airea poesiakeriaz betetzen da: dena gozo eta dena zozo, dena malgu eta dena gandu, dena santu eta dena lantu, dena zotz eta dena motz. Diote euskaldunok arazoak ditugula gure sentimenduak adierazteko. Ez dut esango nik, Fermin Alberdi naizen honek, euskaldunok sentimendurik gabeak garenik. Antzinako euskaldunek oso ezkutuan gordeak zituztelako izango da, ikatz mendien arteko diamanteak, itsaso zakar bateko perlak, Txinako laranjak bezalaxe. Gaur egungo euskal-